

Bizkaiko Foru Aldundiaren /2018 FORU DEKRETU PROIEKTUA, .....aren ...(e)koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudia eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua aldatzen dira.

Foru-dekretu honen bidez, aldaketak egiten dira zergei buruzko bi araubidetan: Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arautzen dituen araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) eta Araudia eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan (2015eko apirilaren 21eko 58/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen araudiari dagokionez, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua hobeto kudeatzeko eta liburu horretan eman beharreko informazioa osatzeko, eragiketari dagokion ekitaldian jasandako atxikipenen zenbatekoa adierazi beharko da, eta, erregistro-liburuaren aurkezpenean oker materiala edo egitezkoa gertatuz gero, ordezkari aitortzen bat aurkeztu beharko da zuzenketa egiteko.

PROYECTO DE DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia /2018, de ---- de ..... por el que se modifica el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia y el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

El presente Decreto Foral introduce modificaciones en dos reglamentos tributarios: el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre y el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2015, de 21 de abril.

En relación con el Reglamento de obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, al objeto de mejorar la gestión y complementar la información a suministrar en el Libro registro de operaciones económicas se incluye la obligación de consignar el importe de la retenciones soportadas en el ejercicio de la actividad correspondiente y en el caso de error material o de hecho en la presentación de dicho Libro registro, la subsanación se deberá realizar mediante la presentación de



una declaración sustitutiva.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko erregelamenduari dagokionez, zerga kudeatzeko prozeduran eginiko aldaketa batzuek behartzen dute erregelamenduan zehaztasun tekniko batzuk sartzera.

En relación con el Reglamento de Sucesiones y Donaciones, algunas modificaciones introducidas en el procedimiento de gestión del impuesto obligan a introducir precisiones de carácter meramente técnico en el mismo.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea foru arau honetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Ondorioz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko .....aren .....ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de ..... de ..... de 2018,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:



1. artikulua. *Aldatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudia; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.*

Aldaketak egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), eta hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Bat. Berridatzi egiten da 39.ter artikuluko 2. zenbakiko lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Oro har, sarrerak eta faktura edo beste frogagiriren bat eragiten duten eragiketarik berezita eta dataren arabera hurrenkeran erregistratu behar dira; erregistro bakoitzak elementu hauek eduki behar ditu gutxienez:

- Idazpenaren zenbakia.
- Eragiketaren data (egin den eguna).
- Eragiketaren deskripzioa; kontabilitateko zer kontutan erregistratu behar den aipatu behar da, aplikatu beharreko kontabilitateko plan orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik.

Artículo 1. *Modificación del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre.*

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre:

Uno. Se da nueva redacción al párrafo primero del apartado 2 del artículo 39.ter, que queda redactado en los siguientes términos:

Con carácter general, los ingresos y las demás operaciones por las que se deba expedir factura u otro justificante se consignarán con la debida separación, por orden de fechas, de forma correlativa y con la inclusión al menos de los siguientes elementos:

- Número de la anotación.
- Fecha de realización de la operación.
- Descripción de la operación, con referencia a la cuenta contable en la que debe registrarse según lo previsto en el Plan General de Contabilidad aplicable.



- Sartutako zenbatekoa, jarduera ekonomikoaren etekina zehazteko. Sarrera jarduera bati baino gehiagori badagokie, bakoitzari zenbat egozten zaion argitu behar da.

- Jasandako atxikipenaren zenbatekoa. Atxikipena jarduera bati baino gehiagori badagokio, bakoitzari zenbat egozten zaion argitu behar da.»

Bi. Berridatzi egiten dira 39.octies artikuluko 1. eta 3. zenbakiak, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. Bitarteko informatikoen bidez kudeatuko da erregelamendu honetan arautzen en eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua. Liburua kudeatzeko, Ogasun eta Finantza Sailak laguntza-programa bat jarriko du zergadunentzat eskuragarri.

Programa horrek sortuko du erregelamendu honen 46 bis artikuluan adierazitako informazio-adierazpenean eman beharreko informazioa.»

«3. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan oker materiala edo egitezkoa gertatuz gero, ordezkotzen aitorpen bat aurkeztu beharko da zuzenketa egiteko.»

- Importe del ingreso a efectos de la determinación del rendimiento de la actividad. En el supuesto de que el ingreso afecte a más de una actividad, deberá constar la parte imputable a cada una de ellas.

- Importe de la retención soportada. En el supuesto de que la retención afecte a más de una actividad, deberá constar la parte imputable a cada una de ellas.”

Dos. Se da nueva redacción a los apartados 1 y 3 del artículo 39.octies, que quedan redactados en los siguientes términos:

“1. El libro registro de operaciones económicas regulado en este Reglamento se llevará por medios informáticos. Para su llevanza, el Departamento de Hacienda y Finanzas facilitará a los contribuyentes un programa de ayuda.

El citado programa generará la información a remitir en la declaración informativa a que se refiere el artículo 46 bis de este Reglamento.”

“3. En caso de error material o de hecho en la presentación del Libro Registro de Operaciones Económicas, la subsanación se realizará mediante la presentación de una declaración sustitutiva.”



2. artikulua. *Aldatzea Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko apirilaren 21eko 58/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori.*

*Artículo 2. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2015, de 21 de abril.*

Berridatzi egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko apirilaren 21eko 58/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 14. artikuluko 3. eta 5. zenbakiak, eta honela geratzen dira idatzita:

Se da nueva redacción a los apartados 3 y 5 del artículo 14 del Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2015, de 21 de abril, que quedan redactados en los siguientes términos:

«3. Autolikidaziotik ateratzen den kuota ordaintzeko bada, behin aurreko zenbakian eginiko izapidea egin ondoren, tributu-administrazioak dagokion ordainketa-gutuna igorriko du, eta zergadunak zerga-bilketako edozein erakunde laguntzailetan egin beharko du ordainketa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 165. artikuluan adierazitako epeetan.»

“3. Cuando de la autoliquidación resulte cuota tributaria a ingresar, una vez realizado el trámite establecido en el apartado anterior, la Administración tributaria emitirá la carta de pago correspondiente, y el o la contribuyente deberá efectuar el ingreso de su importe en cualquier entidad colaboradora en la recaudación, en los plazos señalados en el artículo 165 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.”

«5. Bulego likidatzaileak autolikidazioa egiteko ereduaren ale bat eta jatorrizko dokumentua itzuliko dizkio aurkezleari, ohar batekin batera, zeinaren bidez egiaztatuko den dokumentua aurkeztu dela eta zerga-zorra ordaindu dela edo salbuespena edo

“5. La Oficina Liquidadora devolverá al presentador un ejemplar del modelo de autoliquidación y el documento original, con nota acreditativa de la presentación del documento y del pago de la deuda tributaria o de la alegación de la exención o no



zergapetuta ez egotea alegatu dela.»

sujección.“

Azken xedapenetatik lehena. *Baimena ematea*

Disposicion final primera. *Habilitación*

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru-dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea*

Disposicion final segunda. *Entrada en vigor*

Foru-dekretu hau argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación con efectos desde 1 de enero de 2019.

Bilbon, 2018ko .....aren .....an

En Bilbao, a de de 2018

Ogasun eta Finantzen foru diputatua  
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia  
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

